



1.- Lan bat azkar eta presaka egin eta irakasleari erakutsi ondoren ez al dizu honek inoiz esan?:
Baina zer da hau? Ez dut ezer ere ulertzen. Egizu dena berriz eta gero etorri. Horra zer dioen esaera zaharrak azkar eta presaka egindako lanei buruz:

Lan lasterra lan alferra

2.- Gezurrarekin ez dagoela urrutiegi joaterik esan nahi da esaera honetan; gezurretan dabilena, alegia, uste baino lehen harrapatzen dutela askotan:

Gezurak hanka motza du

3.- Oinez, igerian, hizketan, irakurtzen, soinu jotzen eta beste mila gauza ikasi behar izaten dira. Ezagutzen al duzu inor jaio orduko korrika hasi denik?

Inor ez da ikasia jaiotzen

4.- Etxeko arazoak etxean konpondu behar direla esan nahi da; etxe barruko eztabaida eta haserrearen berri kanpoan zabaldu gabe. Konparazio baten bidez adierazten digu hori esaera zahar honek:

Etxeko sua etxeko hautsez estali behar da

5.- Gertatzen zaizkigun gorabehera, ezbehar eta zailtasunen aurrean ez dugula etsi behar adierazi nahi da esaera honen bidez. Beti aurrera egin behar dugula:

Ogi gogorrari hagin zorrotza

6.- Elkarren arteko gorrotoa adierazteko erabili ohi da atsotitz hau. Pernando Amezketarrak, berriz, bi asto itsu saltzeko erabili zuen, esaeraren anbiguotasunaz baliatuta. Eroستuna astoak itsuak zirelako kexaka etorri zitzaionean berak hala erantzun zion: "nik esan nizun ezin zutela elkar ikusi."

Bista ona eta elkar ezin ikusi

7.- Zerbait egin nahi, eta hasieran ez duzu ondo egiten. Lagunak, laguna bada behintzat, esaten dizu: Lasai, saiatu zaitetz eta ez ahaztu hau:

Eroriz ikasten da oinez

8.- Goizean zeruan hodei gorriak agertzen badira, gauean euria egingo du. Egin ezazu proba esaera hau egia ala gezurra den:

Goizeko laino gorri gaueko iturri

9.- Ikerri bere bizikletan buelta bat egiten uzteko eskatzen badiozu, beti gauza bera erantzungo dizu: "Eeez! Zeuk ere erosi". Baina edozein egunetan ikusiko duzu Iker beste lagunaren baten bizikletan ibiltzen. Hau baita Ikerren legea:

Nirea nire eta zurea gure

10.- Lagunartean pozik gaudenean konturatu gabe joaten zaigu denbora:

Adiskide onekin orduak labur

11.- Euria urria denean lurra gutxi bustitzen da, ostera, elurra denean lurra blai geratzen da. Nekazariak diotenez:

Urte elurrekoa, garizkoa



12.- Kritikak egitea ideiak ematea baino errazagoa da. Zerbait txarto egin ondoren oso erraza da arazoak edo oztopoak non dauden ikustea. Baina ontziak aurrera egingo badu guztiok bultzatuta izango da:

Ontziak galduz gero, guztiok pilotu

13.- Politikan bere interesaren arabera alderdiz alderdi dabilenari; edo lagun bat baztertu etekina ateratzen ez diolako eta gero intereseko zerbait daukanean berriro harengana hurbiltzen denari; edo komenientzia eta interesaren arabera funtzionatzen duen pertsonari esan ohi zaio:

Eguzkia nora zapiak hara

14.- Askotan pilotari batek esku-eskuko pilota bat izan eta, tantoa errazegi eta seguruegi ikusteagatik, huts egiten du. Irabazteko gehiegizko konfiantzak kalte egiten digu:

Non fida, han gal

15.- Ama, gaur ikastolako lagun batekin haserretu naiz.

- A, bai? -eta honela jarraitu zuen amak:

Oilarrak pixa egin baino lehen adiskidetuko haiz

16.- Bibliako pasarte batek ere antzeko zerbait dio:

Errazago ikusi ohi da lastoa besteren begian habea norberarenean baino:

Besteren akatsak ikusteko, ez da betaurreko beharrik

17.- Behin hala gertatu omen zen herri batean: bertako bat hizketan hasi zitzaion herrira etorritako atzerritar bati, honek ezer ulertzen ez eta, orduan gero eta ozenago hitz egiten hasi zitzaion, oihuka, ea zerbait ulertarazten zion, baina alferrik.

Antzekoa gertatzen zaio arrazoi ez duenari ere, oihuka hasten denean, alferrik, arrazoirik gabe segituko du:

Arrazoi ez duenak, oihua handi

18.- Gauzak ez dira aldatzen apaingarri hutsekin, gehienez ere itxuraldatu egingo dituzu. Baina gauzak aldatzekotan muinera jo beharko duzu, barrenera, sakon-sakonera. Bestela inauterietakoa egingo zenuke: mozorrotu, besterik ez. Eta mozorroa kendutakoan lehengoa berriro ere:

Astoa zaldiz jantzi arren, beti asto

19.- Honela esan zion behin gaztetxo batek bere amatxori: ama, gezurra dirudi aita okina izatea, gure etxean egunero bezperako ogia jaten dugu eta:

Errementariaren etxean, zotza nagusi

20.- Ez geroko gerotan geratu, gerta liteke-eta gero hori sekula ez iristea. Iragana iragan, etorkizuna etorkizun, oraina bakarrik bizi dugu, orainak bakarrik bizi gaitu. Ahal baduzu egin ezazu gaur bertan, biharko utzi gabe:

Geroa alferraren leloa



21.- Gustuko lanak ez du nekerik. Bada gizon bat beti gauza bera esaten didana: baina nola jarduten zara zeregin horretan, ez dizu ezer ematen eta. Berak esan nahi du ez didala dirurik ematen, baina ez da konturatzen dirurik eman ez arren asko ematen didala, barruko poza ematen didala. Gizon horrek jakin beharko luke, baita ere, ematen denean gehien jasotzen duena ematen duena bera dela:

Gustuko lekuan, aldaparik ez

22.- Ahobero horrek dena badakiela uste du, baina ezer gutxi daki. Ez daki dakienak ez duela zertan jardun une oro badakiela erakusten. Jakintsuak ez du kezka hori, hori behintzat bai baitaki.

Jakintsua asko ikasi eta gero iritsi omen zen jakitera ez zekiela ezer.

Dakienak badaki, ez dakienak baleki, orduan bai ederki!

Gutxi ikasia, beti jakintsu

23.- Ez baduzu errekarra erori nahi ez hurbildu erreka ertzera. Ez baduzu istilurik nahi ez sartu besteren auzian:

Kanpaia nahi ez duenak aditu, ez dezala soka mugitu

24.- Gizakiari ere antzeko zerbait gertatzen zaio askotan: kanpo-eder, barren-huts izan ohi dela; azalekoa zaindu eta mamiari, barrenari, erreparatu ere ez:

Tximist handi, eta euri gutxi

25.- Alferrik da pasatako trena harrapatzen ahalegintzea. Igarotako urak ez dizu errotarik mugituko:

Ura pasa eta gero, presa egin

26.- Askotan gertatu ohi da mundu honetan: lapurrik handienak lapur deituko dizu, gezurtirik handienak gezurti. Lapurrak eta gezurtiak hala uste baitute: denak berak bezalakoxeak direla:

Zozoak beleari: ipurbeltz

27.- Horrek hitz asko, baina lan gutxi. Asko egiten duenak ez du astirik izaten egiten duela esaten ibiltzeko, hitz egin besterik egiten ez duenak, berriz, denbora du denetarako, baita gezurra asmatzeko ere.

Batzuen harrokeriatarako gaia horixe izaten da, hain zuzen, ez daukatena:

Zakur zaunkaria, nekez hozkaria

28.- Negarrik ezean ez dago titirik. Askotan, lortu nahi dena eskuratzeko, modurik onena eskatzea izaten da:

Isilik dagoenaren berririk, ez du inork jakiten

29.- Xabier Leteren kantu batek halaxe dio: handitzen zarenean ikusiko duzu isilik egoteak zenbat balio duen, jarrai zure bidetik, hobe da horrela, gauza denen gaintetik, haizea bezala:

Zenbat balio duen isilik egotea

30.- Dirua bitarteko huts duzun bitartean bidelagun ona izango duzu. Bitarteko behar lukeena helburu bihurtzen baduzu, akabo, horrexek galduko zaitu:

Dirua morroi ona, baina nagusi txarra